

BEZEROEKIN HARREMANAK

Hasteko, gure enpresaren oinarririk garrantzitsuenak bezeroekin dugun harremana da, izan ere, bezeroak gure jarduera osoaren zati nagusia dira. Haiek gabe, ezinezkoa izango litzateke gure proiektuak aurrera eraman ahal izatea.

Horretarako, zerbitzu pertsonala emango dugu, oso garrantzitsua iruditzen batzaigu aurrez aurreko komunikazioan oinarritutako harremanei behar duten garrantzia ematea. Gure ustez, aurrez aurreko komunikazioak balio handia du, izan ere, harreman hurbilagoak sortzen dituzte bezeroen eta dantza eskolako langileen artean.



Gainera, hurbiltasun horri esker, gure bezeroek dituzten zalantzak errazago argitzeko aukera dugu. Horrek konfiantza sortuko du eta horren ondorioz, harreman onak sortzea lortuko dugu.

Horrez gain, teknologia garrantzitsua da gure bezeroen beharrei erantzuterako garaian. Laguntza pertsonal horri komunikazio-sistema automatizatu bat gehituko diogu. Sistema honek aukera emango die bezeroei momentuko aldaketen berri jasotzeko, hala nola, ordutegien edo jardueren aldaketak. Gainera, gure zerbitzuak erabiltzeko zailtasunak dituzten kasuetan, bezeroak gure eskolara etortzerik ez duenean esaterako, mugikorraren bitartez, klasean egindako jardueraren informazioa modu azkarrean helaraziko diogu.

Komunikazio-sistema automatizatu honek gure arreta pertsonalizatua osatzen du. Honen bidez, hurbiltasuna mantenduko dugu, teknologia eta pertsonen arteko komunikazioari garrantzia emanez. Gainera, bezeroekiko konfiantza helarazten diegu beraien behar eta kezak lehenesten ditugula, eta gure zerbitzuek eta hurbiltasuna eskaintzen dutela.



Azken finean, gure helburua harreman sendo eta iraunkorrak eraikitzea bezeroekin, bai modu pertsonalean, bai teknologikoan. Lotura honek aukera ematen digu gure bezeroekin harremana indartzeko, etengabeko komunikazioari eta arreta

arduratsuari esker. Zerbitzu profesional eta gertutasun berezko balioa gehitzen dio gure proiektuari.